

## ESALDI EDERRAK

N. Mahfuz-ek idatzitako eta Patxi Zubizarretak euskaratutako “Mila eta bat gauen gauak” liburitik aterako esaldi jator, interesgarri eta ederrak



### **Anis-Al-Galis atala.-**

- ❖ Esan ezin ahalako edertasuna bistatu zuen.
- ❖ Eskuak bete opari joan zitzaizkion.
- ❖ Anis-Al-Galis xarmangarri zegoen betiere.
- ❖ Inoiz ez asebetarik, gero eta gehiago eskatzen zuen.
- ❖ Inor ezin haren bihotzaz jabetu, eta aldi berean, inor ezin harengandik urrundu.
- ❖ Denak ala denak ere batera limurtzen zitzaizkion, hondamendira buruz.
- ❖ Dirua galtzeak baino, Anis-Al-Galisez gabetzeak kezkatzen zuen. Emaztea eta seme-alabak beraiek galtzea baino gehiago kezkatu ere.
- ❖ Xalulek egundo ez zuen izan egun haietan bezainbeste zeregin.
- ❖ Batzuen hondamendia, besteen aberasbidea.
- ❖ Ez dakit nolatan ez zaren harekin maitemindu.
- ❖ Halabeharrak nahi izan du zoroen hirian zuhur bakarria ezarri.
- ❖ Diosala jainkozaleak trukatu zituztelarik, Kumkamek bere atsekabeen berri eman zion.
- ❖ Milioika urtean bizia naiz, eta dagoeneko ezerk ez nau harritzen.
- ❖ Izan ere –Xalulek, erantzun– Jainkoak zure babesa baino gauza preziatuagorik eman baitie: arrazoia eta arima.
- ❖ ... bere urratsek ihesbidearen ateraino eramán zuten. Baina inork zabaldu ez.
- ❖ Polizia buruak begirakune urrikaltsua josi zion.
- ❖ Mundua bezalakoxeko istorio zaharra da.
- ❖ Gobernari Suleiman Al-Zaini elkartu egin zen hala polizia buruarekin nola idazkari pribatu Al-Faldil Ibn Jakanekin.
- ❖ Ibili bizkor, sultanak galdeka zaitzan baino lehen.
- ❖ Polizia burua, gizon hautatu batzuekin batera, Etxe Gorriko itxaron gelan zegoen, bazterrak mira eta mira.
- ❖ ...hilketaren jakitun egongo zara.

- ❖ Bazirudien onartu egiten zuela bere patua.
- ❖ Hilobitik dozenaka deabru jaulki ziren.
- ❖ Ene ardura bete besterik ez nuen egin, baina eskuzabala ere banaiz.
- ❖ Albisteak gobernariarengana heldu zirelarik, zelatariak bidali zituen, eta kontrola zorroztu.
- ❖ Al-Muin Ibn Sau'i polizia etxean lanean ari zela, emakume bat agertu zitzaion.
- ❖ Begirakune axolabea zuzendu ziolarik, galdegin zuen:
- ❖ Gizonak arretaz aztertu zuelarik, hizketa molde zakarrean mintzatu zitzaion:
- ❖ Nur Al-Dinek, betiereko amoranteak eta sultanaren suhiak, gaueko otoitzaren ostean onartu zuen, handik bi ordura.
- ❖ Anisentzako ohar bat idatzi zuen, bai bisir Dandanekin bai sultan Xariarrekin elkarrizketa bana eskatuz...
- ❖ Gizon guztiak jausi ziren... Baita Dandan eta Xariar beraiek ere.
- ❖ Edateari ekin zion, noiz mirabearen eskutik, noiz emakumearenetik
- ❖ ...eta halako moldez atsegin hartu zuen amodio jokoetan, lehengo-lehengora itzuli baitzen
- ❖ Emakumeak eskutik heldu, eta, alboko gela batera eraman zuelarik, armairu batean sarturik, giltzaz itxi zuen.
- ❖ Esku onetan dago.
- ❖ Zaude isilik eta ez imintziorik ez zaratarik egin, galduak gara bestela!
- ❖ Erne, mahairantza egin zuen.
- ❖ Armairuekiko gelara zuzendu zen (la habitación de los armarios)
- ❖ Ilunpetan noraezean zihoazen, haztamuka, seinale bila. Baina han ezere zantzurik ez, ezta bizitzarenik ere.

\*\*\*

### **Kut-Al-Kulub atala**

- ❖ Esan ezin ahalako bihotzondokoa hartu zuen.
- ❖ ...Xalulek burlaizean galdegin zion:

- ❖ Lehenago egundo egon gabea zen halako ataka gaizto batean.
- ❖ Nork, zamaketariak beste, garraituko zuen hilotxa hura?
- ❖ Ene mirabeetan zoriontsuena bera zen.
- ❖ Eta zamaketariak zakar eta atalka kontatu zion istorioa, eta bien bitartean polizia buruaren arreta unean baino unean handiagoa izan...
- ❖ Kasik eguna zabaltzearekin batera, hilkutxa gobernariarenera eraman zuten.
- ❖ –Ez, jauna –hark, irribarretsu, erantzun–. Baina heriotzan banaiz aditua.
- ❖ Jelosiarene eraginez laguntza eskatu zidan eta zure mirabe kuttunarekikoak egitera behartu ninduen.
- ❖ Ezer baino lehen hobe zenuke zure emaztea galdekatu.
- ❖ Ikerketa bidezko bat eskatuko dut –erronka jo zion polizia buruak–. Eta nik jasotzen dudana zigor berbera jaso dezala berak ere.
- ❖ Baina horretarako adorerik izan ez, eta urrikaldu egin zen.
- ❖ Hala Kumkan eta Singam, nola zoroa eta Abdula itsasokoa atsekabeturik zeuden...
- ❖ Bakardadearen nahigabea infernu zitzaion, amodio zapuztua sugai.
- ❖ Hala bada, uko egin zion Hasan Al-Atarren eskabideari.
- ❖ Al-Muin Ibn Sauik... merkatariekiko eta aberatsekiko elkarlan susmagarri bati ekin zion.
- ❖ Xabib Ramak, borreroak, atea jo zuen.
- ❖ ... kuxin eta tapiz erosoekiko areto batera eraman zituen.
- ❖ ... Zure kantuak entzun besterik ez dugu nahi.
- ❖ Dandani sultanaren desirak mendiak bezain astunak zitzaizkion, eta, haiek asebate arte, ezin bada, sorbalden gainetik egotzi.
- ❖ Etxe horretan emakume misteriosu bat bizi da, ahots ederrarekikoa eta oinaze zekutu batekin.
- ❖ Goizago edo geroago jakin egingo zuen.
- ❖ ... biak ala biak ere kargugabetu, eta ondasunak bahitu zizkien.

## **Aladin Orinekikoa atala**

- ❖ ... Fadilek bere etxera gonbidatzen zuen aldiro, pentsa ahal aitzakia guztiak jartzen zizkion.
- ❖ Segizioak hara-honaka, haizea banderak astinduka, atabalak eta txirulak joka.
- ❖ Izarren klartasun apalean kasik airezko sentitzen zen, udazkeneko brisarak laztandua.
- ❖ Haur denboratik atsegin ditut.
- ❖ Bada hartaz kontatzen den istorio bat:
- ❖ Jakitunei ergelkeriatik datorkie ustelkeria, gobernariari nagusikeriatik, eta eskaleei hipokresiatik.
- ❖ Orduan, xekeak, gauaren isiltasuna urratu zuen ahoskeraz:
- ❖ Izan pazientzia, Aladin, hastapenak baino ez dira...
- ❖ Ni, ordea, ehiztaria ez, baina bizargina naiz.
- ❖ Gosaldu bitartean, Aladinek gurasoei Abdula Al-Balji xekearekin izandako inkontruaren berri eman zien.
- ❖ Ugrek, ostera, halako poztasunik erakutsi ez, eta gaineratu zuen:
- ❖ Uste dut sekula ez duzula otoitzik egin.
- ❖ Ni neu ere halako nahasmendu batean nago –Aladinek, erantzun.
- ❖ Aladin, denboraz ahantzirik, hausnarketa sakonei lotu zitzaien.
- ❖ Polizia buru(a)... eta haren seme(a)... mando banatan abiatu ziren polizia etxetik.
- ❖ Kasu, zer esaten duzun, Habazlam!
- ❖ Bozkarioa Egian beste ezertan oinarritzen ez duenari, bozkarioa oinaze bide bilakatuko zaio.
- ❖ Haren begitartea salbu, dena da iragankorra.
- ❖ Hura mirestea ez beste guztia hutsala da.
- ❖ Tristezia eta bakardadea Jainkoa ez beste guztia begiratzetik datoz.
- ❖ ... eta iruditu zitzaion mundua misterioaren mintzak bildua zegoela.

- ❖ ... eta bihotz ilunak egin zitzaizkion.
- ❖ Ardoa jaso aurretik, ontzia garbitu eta zikinkeriak oro deuseztu behar dituzu.
- ❖ Zu bai izpirituaren gidaria –arrapostu eman zuen, pozarren.
- ❖ Esku batean ezpata, bestean maitasuna.
- ❖ Gau batez, xekeak ohiko gelan hartu zuen...
- ❖ ...Eta bitartean egun argitan da gure izatea...
- ❖ Aladinok haren oihartzuna sentitu zuen bere baitaren baitan.
- ❖ Hara-honako bizargina baino ez naiz eta!
- ❖ Ardoa parrastan edan zuten...
- ❖ Polizia buruak auzunean barrena sakabanatu zituen bere non-zer-berriak.
- ❖ ...jendearengan eragingo zuen ezinegonaz jakitun, oldarka sartu zen Abdula Al-Baljiren etxean.
- ❖ Azken gertakariekin, esan ezin ahalako tristeziak hartu zituen auzokoak.
- ❖ Zubaidari bihotz ilunak egin zitzaizkion...
- ❖ Udazken goiz hozkirri batez, jende andana baten erdian, goardiek urkamendira eraman zuten Aladin.
- ❖ ...baina halako hileta giroan, ezpatak gora egin zuen, eta gero amildu, esperantza guztiak porrokatuz hartara;

### **Sultana atala**

- ❖ Zein sultan eta sultanondo?
- ❖ Jainkoak dirdaiaz bete dezala sinestunen printzearen begitartea, eta eman diezaizkiola bizi luzea eta sultanaldi iraunkorra!
- ❖ ... eta mahai bat bete janari eta edari topatu zuten.
- ❖ Erresumako gizon andana bat mahaira eseririk, jan ahalak jan eta edan ahalak edan zituzten,
- ❖ Ez bada! Gera gaitezen...
- ❖ Sar dadila salatzailea, Ugr bizargina.

- ❖ Gizon bat azaldu zen oholtza aurrera,...
- ❖ ...ipin ieazkidazu argitan auzi honen ezkutukoak eta xehetasunak,...
- ❖ Non-zer-berriak auzunean barrena sakabanatu nituen eta haiek Al-Muin Ibn Sauioren ahotik beretik jakin ahal izan zuten egia, hura mozkorturik zebilen batean.
- ❖ Harridurak goia jo zuen bertaratuen begitarteetan.
- ❖ Goizetik gauera bitartean ibili behar izan dut lanean, ene ogibidea aterako banuen.
- ❖ Artean ezin nuen irudikatu ere egin halabeharrak ustekabe handi bat ekarriko zidala:...
- ❖ Esan gabe doa hasieran altxorra niretzat beste inorentzat atxikitzea pentsatu nuela, baina pobreekiko sentitzen nuen maitasunak besterik sentiarazi zidan. Hala bada, denok elkarren pareko izango ginen balizko erresuma bat sortzea pentsatu nuen.
- ❖ Ibrahim urketariaren istorioa Xariarren gogobetekoa gertatu zen.

### **Ikustezinaren kapelua atala**

- ❖ Hartan zegoela, gizon begitartetsu bat ikusi zuen, irribarrea ahoan, zeina berarengana hurbildu zelarik, alboan eseri baitzitzaion.
- ❖ Fadilek, beldurrak hilik, begi arranpaloekin begiratu zuen bere ingurumarira.
- ❖ Horrexegatik aukeratu zaitut hamaika jenderen artean.
- ❖ Kontzientziak zer esan, horixe egingo dut –Fadilek, begitarte arrai.
- ❖ ...Gogo nora, bera hara...
- ❖ Izpiritu ikustezin izateak hainbeste atsegina ekarri zion, ahaztu egin baitzuen gainerako guztia...
- ❖ Pozarren eta alegera ibili zen...
- ❖ Bere larri hartan, ohartu zen ezin zela ostatura esku hutsik itzuli.
- ❖ Hala bada, dendara sarturik, dirua hartu zuen eta bihotza urraturik irten zen kalera.
- ❖ ...baina kontu egin beharko zuen, harategikoa bezalako makurkeriaren bat ez eragiteko.

- ❖ Beharbada ezbeharren bat gertatuko zitzaion –erantzun zuen, ahotsa zoli, Xamlulek.
- ❖ ..., eta kafea ilunpetan geratzea eta zaplaztekoak entzuten hastea dena bat izan zen.
- ❖ ... eta denak ala denak ere borrokan eta garrasika ibili ziren,...
- ❖ Ilunabar batez, sandia saltzaile ibiltari baten alboan geratu zen iturriko mailetan atsedean hartzeko.
- ❖ Inoren begien bistan ez zegoela ziurtaturik, jantzi kapelua, eta ikustezin bilakatu zen.
- ❖ ..., eta labanaz lepoan ukaldi hilgarri bat eman ziolarik, parrastan atera zaio odola.
- ❖ ...eta, zuzien argitara, jende ugari bildu zen.
- ❖ Ez, bada! Torturatzailea ez, baina haren anaia bikia hil duzu, gizon zintzo eta arteza...
- ❖ Eta, biharamunean saltzaileari zintzurra egin ziotelarik, kemen guztiek huts egin zioten.
- ❖ Etsipenak hartaratua, edanari eman zitzaion.
- ❖ Deabruak hartua zegoen.
- ❖ Eta pentsamendu haiek nortu egiten zitzaizkion, noiz Kamarrengan edo Hasan Al-Atarren arrebarengan, noiz... Al-Zainiren emaztearengan.
- ❖ Ordutik aurrera, heriotzazko ikara sentitu zuen bere zainetan jariatzen...
- ❖ Baina zer dela eta Fadil Sanan, orain artekoan ez baitut harengan pentsatu...
- ❖ ;... baina orduko hartan zoroak, eskua luzatu ez, eta bidez bide jarraitu zuen. Ikusi izan ez balu bezala.
- ❖ Zoroaren jokamolde aldaketa hark bazuen arrazoirik:...
- ❖ –Hil ezazu zoroa –osteratu zion besteak, lasai demonio–, ez zaizu zaila gertatuko...
- ❖ Bere isiltasunak ez ote zuen hiltzailearen gaizkide egingo?
- ❖ –Azken hatsa ematean, izularriturik, biek ala biek ere Fadil Sananen izena aipatu zuten.
- ❖ Jalil Farisek buruari eragin zion, unean baino unean jakinminez beteago.



- ❖ Fadil Sanan berehalakoan atxilotu zuten, eta kartzelaratu.
- ❖ –Hori baino gehiago da. Esan ezin ahalako eskandalua (da)! Herritarren konfiantza guztiz zapuztuko duena.
- ❖ Matxinsaltoak nola, halatsu sakabanatu ziren non-zer-berriak auzunean barrena.
- ❖ Emazteak ezezkoekin eta negarrez hipaka baino ez zuen erantzun:
- ❖ –Ene senarra gizonetan zintzoena da. Ez ditut sinetsi haren kontrako gaitzesanak...
- ❖ Halakoxe barnegiroan zegoen, noiz eta ere kapeluaren nagusi arrotza agertu baitzizaion.
- ❖ Jainkoa beste jainkorik ez da...
- ❖ –Txiki-txiki egingo haute eta zigorraldi zentzagarria ezarriko –ohartarazi nahi izan zuen besteak.
- ❖ Hurakan bat nola, halatsu inarrosi zuten hiria haren aitortpenek.
- ❖ Zaintzaile artean, urrats irmotan zihoan, begitartea bare, etsipenak nola edo hala harturik.
- ❖ ...; beste munduaren zantzuetako batek, Xalulengan nortua, harriduraz bete zuen:
- ❖ ...alimaleko adorez...
- ❖ Jainkoak zer nahi, horixe egiten du –erantzun zuen Xalulek, naretasunez.

### **Maruf zapataria atala**

- ❖ Emaztearen gatibu sentitzen zen, hala nola Faldi Sanan deabruarena.
- ❖ Buruz buru zituen lagunei begirakunea josirik, ahots goran esan zien:
- ❖ Non daude, baina, jauregiak eta mirabeak? Non arrandia eta handitasuna?
- ❖ Erakuts egiguzu froga bakar bat...
- ❖ Albistea bolo-bolo zabaldu zen, eguzki izpiak udako egun batean nola.
- ❖ Handikien nahiz herritar xeheen harridurak goia jo zuen...
- ❖ Zein mirariren bitarteko gertatu zen?
- ❖ Ez gu ahoa bete hortz utzi.

- ❖ Eta urte askoan lehenengo aldiz, barre egiten ikusi zuen.
- ❖ Pobretasunean mirabe ninduzun eta zorionarekin kanporatu egiten ez nauzu bada!
- ❖ “Zein ote da honen guztiaren esanahia?”, egin zuen bere baitan.
- ❖ Ametsa ote da, ala errealitatea?
- ❖ Altxa nazazu arra bete bat (= un palmo)
- ❖ Zain geratu zen, grinatsu, ikara gorrian. Baina ezer gertatzen ez.
- ❖ Nahigabe hura bere baitaren baitan hilobiratu zuen.
- ❖ Gertakariak berez-berez datozela, Jainkoak nahi bezala.
- ❖ Baina, zer pentsatuko ote zuen jendeak Salomonen eraztunaren jabea zela eta ez zela?
- ❖ ...bera bezalako izaki dohakabe batek ezin lantokira itzuli gabe etsi.
- ❖ Jainkoak egun on, Maruf!
- ❖ Bai zuri ere, polizia buru jauna –hark, erantzun.
- ❖ Jende ikusminak ... etxera bidea hartzera behartu zuen.
- ❖ Harantzean, Ugr bizarginarekin elkartu zen.
- ❖ ... hiri osoaren aho mihitan zebilen
- ❖ Hitz bakarra dut zuri esateko, Maruf, eta Jainkoaren beste inoren beldur ez den honek diotsu.
- ❖ Lorpen horrekin izan zaitezela sinestunen eredu eta jentilentzat abisu.
- ❖ Baina horrek ez du esan nahi Jainkoak eskaini didan dohaina baliatu behar ez dudarik.
- ❖ Eta, paradisia nola, halatsu maitatu zuten aurrerantzean bizitza.
- ❖ Bere baitan egin zuen
- ❖ Ez zaitez ardura (= no te preocupes)
- ❖ Jainkoak begira nazala halako asmoetatik!
- ❖ Miletan eta miletan eskertzen dut kreatzailea.

- ❖ Nik neuk ez dut zertan damaturik.
- ❖ Jainkoari esker, badut emazte bat, arnasa hartzen duen aldiro zoriona ematen didana.
- ❖ Eskariak bihotz ilunak eragin zizkion. Itxaropenak oro hautsaren gisara aienatu zitzaizkion.
- ❖ Eta, ez baita ezertxo ere gertatu, arranguraturik hots egin du: Gupida zaitez nitaz, ene jauna!
- ❖ Zeinen ezdeusa den sultana ... zeine hutsalak handinahiak oro!
- ❖ –Nor zaitut, gonbidatu ohoragarri hori? –galdegin zuen.
- ❖ –Jauregi honen jabea naiz –gizonak, zakar, erantzun, ingudea kolpeka darabilen mailuak nola.
- ❖ ... baina zuk zeure burua baino hobeki ezagutzen zaitut nik.
- ❖ Marufek Salomonen eraztunari gizon harekikoak egiteko eskatu zion. Baina ez baitzen ezer gertatu, atsekabea harturik esan zuen: Nor zara?
- ❖ Hala bada, joan da etxera, emaztea soingaineko batez janztera behartu du eta bidezorro batean gorde du dirua.
- ❖ Eta, mando banatara igo zirelarik, ibairantza egin zuten.
- ❖ ... menditik datorren ur jauzi bat nola, halatsu oldartu ziren harako bidean.
- ❖ Sultanaren segizioa zaldun sail handi batek lagundua heldu zen.

### **Sinbad atala**

- ❖ Bitxi bada bitxi, sultanak onartu egin zuen,...
- ❖ Eta bere egitekoa arrakastaz burutzea opa ostean, zera jakin nahi izan zuen:
- ❖ Zergatik ez froga egin?
- ❖ ... harribitxiarik arrosario pertsiar bat eskuetan
- ❖ Baina aldian aldikoa (casa cosa a su tiempo).
- ❖ Bada gosearen ondotik aberastu denik eta bada pobretu den aberatsik.
- ❖ Eta ni mirariak itsasoan baino gertatzen ez zirelakoan.

- ❖ Kontaguzu gertatu zaizun gauza liluragarriren bat.
- ❖ Horren ostean baino ez dizkizuet ene bidaia miresgarriak kontatuko.
- ❖ Xalulen esku utzi zuen hura janztearen eta apaintzearen ardura.
- ❖ Jakituria istorioen pilaketan ez, baina haien erabileran datza.
- ❖ Istorio horietan izango duzu laketzeko aukerarik.
- ❖ Arrano baten gisako hegazti bat bistatu nuen, baina hura halako ehun.
- ❖ Orduan ohartu nintzen lurrari halako printz dirdaitsuak zerizkiola.
- ❖ Gurekeriara emanak bizi ginen, zer ekarri, hura jan.
- ❖ Gero, bere baitarako bezala, gaineratu zuen:
- ❖ Txinarantza itsasoratu ginen batean, hondoa jo genuen.
- ❖ Sinbad isil-isila geratu zen.
- ❖ Ikasi, ikasi dut, ene Maiestatea, askatasuna izpirituaren bizitza dela.
- ❖ Ni beste inor ez zen onik irten.
- ❖ Jan eta edan ahal guztia jan eta edan ostean, uhartea zokomiratzeari lotu nintzaion.
- ❖ Utz egidazu joaten, zure esanetara egongo naiz behar nauzun aldiro.
- ❖ Ene erreguei entzungor, irri algara bat egin zuen, arrapostu gisara.
- ❖ Pozik egon zaitezke Jainkoak eman dizkizun ondasunekin eta jakituriarekin.
- ❖ Iratxo txiki bat zuhaitz tantaien itzal artean nola, lorategian barneratu zen.
- ❖ Kasik guztiak gogaitzen nau.
- ❖ Gaur, baina, hiria pozarren bizi da berorren sultanaldi zuzenean. (=pozik)
- ❖ Sinbaden istorioak zureen antz-antzekoak dira, gero!
- ❖ Benetako damuak iragana deuseztatzen du.
- ❖ Baita gazte errugabeez eta aholkulari onez beterik badago ere?
- ❖ Hamar urtean, tentaldiaren eta eginkizunaren artean tenkatua bizi izan naiz, noiz oroitzapenek itsutua noiz askatua.

- ❖ Ene askapena bilatzearekin, garbitasunaren ateak zabaltzen dizkiot.
- ❖ Bidaia zaitez bada (pues viaja)

### **Negarretan ari direnak atala**

- ❖ Bere baitaren baitan bentzutua, tronutik jaulki zuen bere burua, noiz eta ere erresumak haren lehenengo bekatuak ahantziak baitzituen. (precisamente cuando...)
- ❖ Eta mamuak nola, hirirantza abiatu ziren.
- ❖ Zein ote zen haren guztiaren esanahia?
- ❖ Burua doi bat sartzea eta barrunbeak ezinbestean erakarria sentitzea dena bat izan zen.
- ❖ Pasabidearen buruan, ate argitsu bat zegoen, harri preziatuz josia irudi.
- ❖ Urrats kementsuetan egin zuen aurrera.
- ❖ Eta Xariarrek, neska gazteak lagundurik, jauregira bidea hartu zuen.
- ❖ Hirian emakumeak besterik ez ziren bizi, gizon bakar bat ere ez haien artean, eta denak ala denak ere gazteak ziren.
- ❖ Bere erresumako eskale arrunt bat nola, halatsu geratu zen jauregiak miretsirik.
- ❖ Gureztat, baina, denbora aliatua da, traidorea bainoago.
- ❖ Goretsia izan bedi oro egin dezakeen Jainkoa.
- ❖ Hemen denik eta askatasunik handiengan bizi gara.
- ❖ Gomendiorik txikiena akats larria da gure begietarako.
- ❖ Hori duela miloika urteko kontua dugu.
- ❖ Oraindik elkarrekin ehun urte besterik ez ezkondu ginela, eta dagoeneko horretaz pentsatzen ari zara?
- ❖ Ezein gizakik ez du egundo ezagutu nirea bezalako zoriontasunik.
- ❖ Iragana guztiz ahantzi arte ez duzu zoriontasunaren betea dastatuko.
- ❖ Mirabeak adia galdurik zebiltzala baliatu, eta giltzari eragin zion.
- ❖ Eta, Xariarregana makurtu zelarik, txoriño bat nola, bi eskuen artean jaso zuen.

- ❖ Egiaren ezaugarrietako bat da ezen inori ez diola hura iristeko bidea zelaitzen ez hura iristeko esperantzaz gabetzen.
- ❖ Horren ondotik, Abdula Al-Akil hirira bideari lotu zitzaion.

### **Libertimendu baten gisara – Gilbel Solasa – atala**

- ❖ Eta beren buruekin bakezkoak eginik, nor bere jauregira itzuli zen.
- ❖ Horraino *Mila gau eta bat gehiago* ipuin bilduma kasik amaigabearen abiapuntua.
- ❖ Baina oraingoan ere hara non topatu nuen *Sinbad marinelaren abentura berriak* liburua, non hainbat idazlek Sinbaden balizko zortzigarren bidaia kontatzeari ekin zioten...

